Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

# NOLA FROGATU ZURE UNIBERTSITATE-TITULUAREN BENETAKOTASUNA

## Autokudeaketarako gida azkarra

Askotan, profesional gisa, gure Unibertsitate Titulu Ofizialaren kopia konpultsatua eskatzen digute kudeaketa formal, enplegu-eskaera eta -lehiaketa publiko jakin batzuetan sartzeko edo, besterik gabe, horren benetakotasuna egiaztatzeko.

Kopia hori ez badugu eta gure Titulu Ofiziala eraman nahi ez badugu modu presentzialean erakusteko eta erakundeak erkatu ahal izateko, **haren benetakotasuna frogatzeko oso modu sinplea dago**.

**Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak, "Unibertsitate-tituluen kontsulta"** doako zerbitzuaren bidez, zure titulartasunekoak diren Espainiako unibertsitate-titulu ofizialak kontsultatzeko aukera ematen du, eta, nahi izanez gero, baimen-kode bat sortzeko, hirugarren pertsonek benetakotasun-baldintza hori kontsulta ahal izan dezaten.

Urratsez urrats, zerbitzu horretara nola sartu azalduko dizugu. Ziurtagiri digital edo gako iraunkor bat besterik ez da behar.

**LEHENENGOA.- Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa**ren egoitza elektronikora sartuko gara, zehazki "Unibertsitate-tituluen kontsulta" erlaitzera, esteka hau erabiliz:

https://universidades.sede.gob.es/pagina/index/directorio/consulta_titulos




**BIGARRENA**: Klik baten bidez, "Prozedurarako sarbidea" erlaitza aktibatuko dugu, eta, ondoren, daukagun identifikazio-metodoa hautatuko dugu, dela NANe/Ziurtagiri elektronikoa, dela Pin Gakoa edo Gako Iraunkorra.

Euskadiko
Fisioterapeuten
Elkargo Ofiziala

Colegio Oficial
de Fisioterapeutas
del País Vasco

# NOLA FROGATU ZURE UNIBERTSITATE-TITULUAREN BENETAKOTASUNA

## Autokudeaketarako gida azkarra







**HIRUGARRENA**: Identifikatu ondoren, "Eskaerarako Sarbidea" sakatuko dugu.




**LAUGARRENA**: Jarraian, gure datu pertsonalak eta gure unibertsitate-tituluak agertuko dira.

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

# NOLA FROGATU ZURE UNIBERTSITATE-TITULUAREN BENETAKOTASUNA

## Autokudeaketarako gida azkarra




**BOSGARRENA**: Hirugarrenentzako <u>egiaztapen-kodea</u> jasotzen duen dokumentua sortzeko, “**Baimenak**” sakatu beharko dugu, eta, ondoren, “**Gehitu baimenak**”.

Jarraian, “**Gehitu baimenak**” sakatuko dugu




**SEIGARRENA**: Bete baimenaren “**Izendapena**”, hau da, zure tituluaren benetakotasuna erkatuko duen erakundearen izena. Adierazi baimen hori noiz arte izango den baliozkoa. Hautatu “**Eskuragarri dagoen Titulazioa**” eta egin klik “->” gezian. Azkenik, sakatu “**Gehitu**” botoia.




*Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala*
C/ Ibarrekolanda, 15 - 48014 Bilbao
cofpv@cofpv.org
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Tel.: 944 020 155
www.cofpv.org

# NOLA FROGATU ZURE UNIBERTSITATE-TITULUAREN BENETAKOTASUNA

## Autokudeaketarako gida azkarra

**ZAPIGARRENA**: Hori egin ondoren, plataformak hasierako pantailara eramango gaitu berriro, gure baimena behar bezala gehitu dela egiaztatuz.




**ZORTZIGARRENA**: “**Baimenak**” atalean, sortu berri dugun baimena agertuko zaigu. “**Ekintzak**” atalean, gure baimena deskargatu ahal izango dugu PDF formatuan edo QR kodean, edo aldatu edo ezabatu.




**BEDERATZIGARRENA**: Dokumentua PDF formatuan deskargatzen badugu, gure datuak eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren artxiboetan jasota dagoen titulazioa agertuko dira. Gainera, orriaren amaieran, erakundearen datuak, egiaztapen-esteka eta zure unibertsitate-tituluaren benetakotasuna egiaztatzeko sartu beharreko kodea agertuko dira.

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

# NOLA FROGATU ZURE UNIBERTSITATE-TITULUAREN BENETAKOTASUNA

## Autokudeaketarako gida azkarra

MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL

**Relación de títulos oficiales**

**Nombre y apellidos:** [redacted]
**Número de documento:**

**Título:**
Diplomado en Fisioterapia

**Universidad:**
Universidad de Valladolid

**Fecha de fin:** [redacted]
**Fecha expedición:**
**Número de título:**

**Título:**
Diplomado en Enfermería

**Universidad:**
Universidad del País Vasco

**Fecha de fin:** [redacted]
**Fecha expedición:**
**Número de título:**

**Título:**
Máster Universitario en Neurociencias

**Universidad:**
Universidad del País Vasco

**Fecha de fin:** [redacted]
**Fecha expedición:**
**Número de título:**

Esta información puede ser verificada tecleando el código **2ee82b76a63120c5c048477981bcb4acbe880622** en :
**https://sede.educacion.gob.es/registrotitulos**
o accediendo directamente a:
**https://sede.educacion.gob.es/registrotitulos/mostrarAutorizacion.action?ticket=2ee82b76a63120c5c048477981bcb4acbe880622**

Página 1 de 1

Informazio hau zuen interesekoa izango delakoan. Zalantzarik izanez gero, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialarekin jar zaitezke harremanetan, honako bide hauetako bat erabiliz::

- √ Telefono-zenbakia: 944 020 155
- √ Helbide elektronikoa: cofpv@cofpv.org
- √ Online plataforma: https://cofpv.org/eu/contacto.asp
- √ Helbidea: Ibarrekolanda kalea 15 _48014 Bilbo (Bizkaia)